

Bertsolaritzaren estudiorako

Joze Azurmendi

Proporzioan dexente estudiantuta daukagu bertsolaritza euskal literaturaren barruan. Ikerketaok aitzinarazi dituztenen artetik, lauren izenak aipatuko ditut:

Lau izen eta hamaika problema

1. M. LEKUONA: haren lanak *Aozko Literatura*, 1978, liburuan bildu dira.

2. J. M. LEKUONA: zenbait bertsolari partikularri buruz eman dituen lanak aparte, bertsolaritzari buruzko bi lan orokar inportante destaka geniezaioke: *Literatura oral vasca*, in *Cultura Vasca*, 1978 eta *Ahozko Literatura in Euskararen liburu zuria*, 1978, 167-188.

3. S. ONAINDIA: *Gure bertsolariak*, 1964, liburuaz aparte, laguntza haundia da *Milla Euskal Olerki eder*, 1954.

4. A. ZAVALA: *Bosquejo de historia del bertsolarismo*, 1964; *Auspoa*.

Gero kontu ezin ahala artikulua, hitzaurre eta reseina partikular dago, edo liburuak ere, gai (metrika, etab.) edo bertsolari jakinen bati buruz (Pernando Amezketarra, Bilintx, Xenpelar, etab.).

Lan modu honetan, Lafitteren inportantzia gogoratuz batera, beste bi autore ekarriko ditut hona:

J. HARITSCHELHAR, *Le Poète souletin Pierre Topet-Etchaun*, 1969. Azken partean, batez ere, estudio batzuk (metrikaz, rimaz, doinuaz, etab.) bertsolaritzaz orokarki. Ik. ematen duen bibliografia.

J. M. DE LEIZAOLA, *Estudios sobre la poesía vasca*, 1951; *La «Crónica» en la poesía popular vasca*, 1961; *1808-1814 en la poesía popular vasca*, 1965; *Romances vascos y literatura prehistórica*, 1969; *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*, 1974.

Hasteko, guziz egokiak dirudite aipaturiko Zavalaren eta J. M. Lekuonaren lanek, historiaren aldetik bata eta interpretazio/klasifikazio sistematiakoaren aldetik bestea.

Bibliografia gehiagotarako ik. —aip. Haritschelharrez gain— Lafitte, *Herri literatura*, in *Lur eta Gizon*, 1974, 349-350. J. M. Lekuona, goian aipatutako lanak. J. M. Torrealdy, *Euskal Idazleak Gaur*, 1977, 168-169.

Bertsolaritzaren inbestigazioa propioki hasi, Lekuona zaharrak hasi zuen gure artean (1918) —eta kasik bukatu ere bai, oraingoz oraingoa, azken aldi honetan inpresioa egiten duenez— deus ezertan bada, ezer oso gutxitan pasa bait gara Lekuonak behin egindakotik aurrera. Lekuonak egindakoan estankatuta gaudela, ematen du. Errentatik bizitzen.

Historia aldetik bai, A. Zavalak lan galanta egin du.

Alabaina, ia dena egiteko daukagula, esan liteke, hemen ere. Xehetasunik edo garbitasunik nahi den orduko, ia dena oraindik inbestigatu gabe dagoela, aurkitzen da. Gure mintzamoldea bera, bertsolaritzaz asko mintzaten den orainaldi honetan, desegokia ageri da: bertsolari eskolak, belaualdiak... aipatzen dira, baina sentido garbi gabe. Lexikoan bertan diferentziak daude (zer da «puntuua»? Behin «rima» da: «puntu zaila»; bestean «unidad rimada»: «puntu luzea»). Zer dira koplak eta bertsoak? Eritzi desberdinetakoak dira, esate baterako, Lafitte eta Lekuona¹. Euskaraz rimatzeko erraztasunaz hitzegiten da. Topiko bat. Baina rima estudio tajuzko bat ez dago, bertsolaritzaren historia zehar. Doinuak. Neurriak (silabak, ala oinak), etab., etab.

Ezer ez dakit, baina trobadoreak irakurriz, «farai un vers...» hasten bada textu bat, bertsolariak ere maiz holaxe hasten direla, pentsatzen dut (eta bertsoa «estrofa» dela, troban bezalaxe, ez «verso»). «En cest sonet coind' e leri» hasten bada beste

bat, «ahaide delezius huntan» datorkit gogora, etab. Nondik etorri da Euskal Herrira, Mondragoeko erreketak kantan ageri den Presebal (Parsifal) horren izena, kanta epikoetatik ez bada? Baina ia beti gure bertsolaritzaren bitxitasuna eta orijinaltasuna goratzen dira, influentzia eta zerikusi posibleak ez dira aztertzen.

Azken batean, bertsolaritzaren kontzeptua bera dago konprometatuta. Bertsolaritzaz mintzo gara, baina bertsolaritzaz zer ulertu, ez dago batere garbi.

1. — Hastapen omen direnak

Datu soil batzuk emango ditut, bide honetatik oraindik asko dagoelakoan egiteko.

Bertsolari zahar gutxiren izenik eta bertsorik dakigu, konprengarri denez. Magnetofonorik ez zegoen eta bertsoak ez ziren idazten oraindik. Giza memoria, ordea, flakoa da eta ttipia.

1.1. GIPUZKOA-n, Gorosabel eta Iztuetaren bitartez, ezagutzen dugun lehenengoa, Pernando Amezketarra da (1764-1823), oraindik herriak ondo gogoan duena: «el primer gran bersolari conocido» (A. Zavala).

Eta hona hemen problema bat. Bizkaiko eta Ipar Euskadiko bertsolaritzaren historia ez dugu behar bezala ezagutzen: bertsolaritzaren aztertzaile inportanteenak, Lekuona zaharra eta Zavala, biak izan bait dira gipuzkoarrak. Agian bada oraindik beste lurralde horietan zer jasorik franko, Lekuonaren eta Zavalaren bilketa lana jarraituz. Ez da ahaztu behar, justu parte horiek oso aberatsak direla kantategian².

1.2.1. IPAR EUSKADI-n, nolana ere, ezagutzen dugu Pernando Amezketarra bezain bertsolari zahar bat, Zuberoan hain zuzen, «Beñat Mardo, Barkoxe Basabilako», ez noiz jaio zen eta ez noiz hil garbi dakiguna, baina XVIII. mendetik XIX.era ko bueltakoa hura ere.

Konparazio baten ondoren, hona bi puntu gogoangarri:

1.2.2. Pernando Amezketarren «eskolan» (Zavalaren sentidoan) «debió ser más o menos frecuente el empleo de la estrofa de nueve puntos o rimas»³; Beñat Mardok badirudi maizenik hiru puntukoa (XVIII. mendeko bertso eta kantetatik Hegoan ere ezagutzen duguna), gehienik ere laukoa (orain ere korrientea) erabiltzen zuela, eta rima kontuan gipuzkoarrak baino na-

saikiago jokatuz beti ere. Kontu egiten bada —niretzat ez da gauza garbigia— rimaren aberasteak eta zorrozteak (lehenengo pareatu soila —«bertso»—, gero hiru, lau... puntutakoak) eboluzio bat adierazten omen duela bertsolaritzaren historian, esan daiteke, urtez garai beretsukoak izan arren, gipuzkoarrek eboluzio maila aurreratuagoa errepresentatzen dutela zuberotarrek baino. Konjetura modu hauetarako, nolani ere, jeneraldu samartu diren arren, ez dut uste gauzak asko argituta dauzkaunik.

1.2.3. Bertsolaritzaren desarroilo sozialari buruz garbitasun haundiagoak aurkitzen ditugu. «Desafioen» ohiturak oso jenerala dirudi, ordurako, bai Gipuzkoan eta bai Zuberoan: bertsolaritzaren tradizio luze bat aurretik bazegoela, adierazten bait digu horrek (eta Zuberoan bertsolari gehiago ere bazegoela Beñat Mardo eta Museña bakarrik baino). Bertsolaritza, orduan jadanik, oso aspaldiko gauza bezala ikusten zen. «Betikoa» bezala kontsideratzeko joera nabari da jadanik (hala Iztuetak, esate baterako) ⁴.

1.3.1. Izena dakigun zaharrenak, halere, BIZKAI-tarrak bide ditugu, Zamakolak aipatu eta Truebak azalduko De la Fuentetarrak hain zuzen, Durango-ko zilarginak.

1.3.2. Hauek, dirudenez, bertsoak egin eta bertsolariek ohi ez zituzten doinuz ere abesten zituzten, geroago Iztuetak, Iparragirrek, Bilintzek, etc. egin duten moduan. Horiene da «Ator, ator mutil etxera» kanta ezaguna.

Hauekin ageri zaigunez, bertsolariak herriz-herri eta festaz-festa ibiltzea, lehenago jogleareak bezala, ohitura zen XVIII. mendearen azken aldera.

«Itsu-kantak» ezagutzen zirela (gogora Otañoren «Limosnatxo bat»), Aita Mateo Zabala bilbotarrak erakusten du: «Madrilgo itsu barri-zabaltzaileak».

1.3.3. Ez dira ahaztekoak Mogelen *Peru Abarca*-ko bertsoak. Bertsoak bi puntukoak dira. Batean mozkor bat da bertsolaria —hots, Moglek bertsolari jartzen duena— eta «nago icaratuta —aitortzen du Maisu Juanek— celan guizon ordi batec atera leiquezan alango bertsuac, ta cantau ain claru» (*Diálogo Primero*). Bestean, ordea, abade batek ipinitako irakas-bertsoak dira, Ilustrazioko estiloan edo alegi antzera: eta «ce plagak iracasten deutsee eusqueraz coplaac eguiten?», harritzen da Maisu Juan (*Diálogo Tercero*).

Moglek, duda gabe, bertsolaritza Euskal Herrian ikasiena

adina ezikasiena, gizonen nahiz emakumeen gauza, dela, erakutsi nahi digu (*Diálogo quinto*: lihoa jotzen eta bertso kantari emakumeak). Baita euskaldunek, ordurako, bertsoan zer estimatzen zuten, agertu ere: «Verso asco iracurri ditut neure aldijan erdaldunen liburuetan —aitortzen bait digu Maisu Juanek—; baña ez verba guichitan gauza gueijago esan gura dabenic». Horra Mogelek bertsoaritzaren destakatzan dituen hiru gauzak: gizon nahiz emakume, eskolatu nahiz gabeena izatea, hitz gutxitan asko esatea eta kanta klarua.

Mogelek «Baigorritarren kanta» ere aipatzen du, Ipar aldekoa eta puntu zailagokoa, liburuan ematen diren beste bertsoak baino: beraz, bertsoaritzaren, Ipar eta Hego, Euskadi osokoa zela, adierazi digu orobat.

Mogel, nik uste, gehiago begiratu beharko litzateke bertsoaritzaren historian.

1.4.1. NAFARROA (Bordel: 1792-1879) eta ARABA (J. P. Ulibarri: 1775-1947) geroago agertzen dira bertsoaritzaren historian besteak baino. Ulibarri bi eta lau puntuko bertsoak egiten ditu (baina esan ote daiteke bertsolaria zenik?). Bordel, bertsolari fina eta aberatsa, lau, bost, zazpi, zortzi, bederatzi puntukoetan berdin trebe.

1.5.1. Lehenagotik ere baditugu bertsoak, XVIII. mendekoak batik-bat, Autoreen berri gutxirekin izan arren: Iraultza Frantsesaren ingurukoak (Francisque Michelek, Urkijok, Haristoi apezak ezagutaraziak); Berdabiokoarenak, etab.

1.5.2. Zahartasunari gagozkiola —eta bestela ere—, ez dago urratzerik egungo iluntasuna, hobeto aztertu gabe: a) bertsoa eta koplak zaharra, b) bertsoa eta herri-kanta, bereziki erromanteroa, c) bertsoa eta beste inprobisazio forma errimatuak (Bizkaiko *ditxoak*, Zuberoako *txikitoak*, *errandoak*), etab. Hau da, ez daukagu bertsoaritzaren, egin ohi den moduan, gehiegi isolatzerik eta apartatzerik antzeko beste espresio modu poetikoen artean eta aldean.

2. — Mitoa

Kontrazio xelebre bat badago. Bertsoaritzaren antzinatasunaz mito errazegi bat egin da, euskal bertsoaritzaren betikoa edo dela; eta mito guzien kontra doan gure aldi azkar honetan erraz sortu da antimito haserretua ere: bertsoaritzaren fenomeno aski modernoa dela Euskal Herrian, XIX. mendekoa edo.

2.1.1. M. LEKUONAK bertsozaritza —Euskal Herrikoa mugatu gabe lehenengo— «orain millaka urtekoa» dela, esaten du (*Aozko Literatura*, 1978, 73): Testamentu Zahar eta Berriak aipatzen ditu probagarri; Virgilioren Eglogak orobat (Iztuetak ere aipatzen zituenak: «Birgilioc esaten du bere artzai-jolas edo Eglogaetaco batean, nola bein-batez ari ziraden Menalcas eta Dametas apustua eguifñic itz-neurtuetan jocatzen...), eta Afganistango, Afrikako, tribu bertsozale batzuk (aip. lib., 75 or.; ik. halaber 544/5 eta 574 or.: azkenekoa euskaldunei eta grekoei buruz, teatroko antzak ere aipatuz bi herrion artean). Euskal bertsozaritza diharduela, askotan aipatzen ditu Lekuonak bertsozaritza tankera «neolitiko» (26 or.), «prehistorikoa» (59 or.), etab. «Hay un paralelo perfecto entre nuestra poesía decorativa y el arte —la plástica neolítica— de aquella remotísima edad» (556 or.; ik. halaber, 594/5 or. eta *Literatura oral euskérica*, 59 or.). Zenbait koplak zaharren «majia-kutsua» seinalatzen du (21, 554 or. *Lit. oral euskérica*, 117), edo «kutsu gotikoa», etab. (15, 588 or.; ik. halaber *Santa Klararen kanta zahar bat*, in *Bi antzerki ta itzaldi bat*, 1965, 102). (Zahar: h-ez eta 65ean).

Euskal bertsozaritza, Lekuonaren ustez, artzantzarekin sortu da. Baina horrek ez digu asko erabakitzen, mendiotan artzantzak dexente iraun du eta.

Lekuonaren eritzion gainean sortu dira gero, duda gabe, beste jeneralizazio borobiltxo haiek, orain erreakzioa probokatu dutenak:

2.1.2. J. GOROSTIAGA (*Antología de la poesía popular vasca*, 1957: «Cantan todos los vascos; canta el pueblo entero», «desde las más lejanas épocas que la ciencia prehistórica logra penetrar, el vasco da muestras de su actividad poética», etab.

2.1.3. JAUTARKOL (*Xenpelar bertsozaria*, 1958, 13): «Bertsozaritasuna ezta gurean atzo goizeko gauza. Euskera bera bezin antziñakoa degula esango nuke».

2.1.4. ONAINDIA berdin ari da (*Euskal Literatura I*, 1972, 58): «Euskera bezin antzinakoa dugu oitura au», etab. Zentzu berean in *Gure Bertsozariak*.

Euskaldunei, ez dakit Tubalek edo Tarsisek, irakatsi ziela ere bertsoak asmatzen, esan omen zuen norbaitek.

2.1.5. Bistan da, horrelako argitasunek ezer gutxi argitzen dutela. Eta horren aldean hobe dela, bertsozaritzaren historia exakto 1801ean hastea, esate baterako. Gutxienez datuekin ibiltzea da.

Lekuonak aipaturiko kutsu magikoak, neolitikoak edo prehistorikoak, obserbazio egokiak izan litezke poesia honen tan-
kera karakterizatzen: gutxiago bertsoak noizkoak ote diren
datatzeko⁶. Bestalde azterkari guziek destakatzen dute musikaren
eta bertsoaren arteko lotura herdua eta biok elkarrekin batera
egin duten desarroiloa: bertso musikak, ordea, ez gaitu ezein
neolitikotara remititzen, Eliz musikara baino. Antzinako eus-
kaldunak, monoteista fin ezezik, gregoriano kantari ere bazirela,
suposatu behar ez badugu behintzat... Lekuonak dioen «kutsu
gotikoa», aldiz, askoz gauza konkretuagoa da kutsu soila baino
eta baliozkoa dirudi erromantze edo kanta batzuen data bilatze-
ko (arte plastikoekin, ohiturekin, etab. konparazioz jokatzuz alegia).
Baina, zoritxarrez, bide honetatik oso lan gutxi egin da
gure artean, *Formengeschichte* antzeko metodo bat lantzen alegia,
textuaren barrutik posibilitateak ireki liezazkigukeena, textua
noizko eta zein giro sozial-kulturaletakoa den aberigutzeko.

3. — Bertsogintza eta euskal literaturaren historia

Egun espreski «bertso/bertsolaritza» deitzen dugun horretan
(«bertso berriak» bait dira), urrutiraenik Frantziako Iraultza in-
gurura arte iristen omen gara dokumentu zehatzen bidez, ez
gehiago. Ez ote dago ezer handik aurrera? Asko ez badago ere,
mereziko luke bertsolaritzaren historigileek aintzakotzat hartzea.
Ausaz dena ez da mito mitoan.

3.1.1. Axularrek eta, bertsolaritza ez aipatzea, ez da ezeren
probarik, nik uste. Larramendik ez aipatzea gehiago. Baina bert-
solaria, askotan, gure egunotaraxe arte, sozialki, moxkor-arlote-
-tartail-alferrontzi baten modura ikusita egon da gure herrietan
(halakoxe tipoak izaten ziren sarri bertsolariak berak) eta, behar-
bada, andoaindarrari ez zitzaion batere erraza gertatu erromeria
eta festetako bertsolari haiek behar bezalako «figura noble»
bihurtzea... Ez dakit.

Nolanahi ere, isiltasuna haundia da, eta ez Larramendirena
bakarrik⁶: Hiribarrenen poeman bertan (*Eskaldunac*) ez dira
aipatzen...

3.1.2. Bertsolarietako mespretxua, edo gutxiespena, aspal-
-aspaldikoa da. Ez da Krutwigena eta «aranistena» bakarrik.
Ezaguna da C. Echeagarayren gaitzeritzia. Orixek estimazio ika-
ragarririk ez zien (ik. *Euskal literaturaren atze edo edesti labu-
rra*). Berdintsu orain L. M. Mujikak (ik. *Hitzaurrea* in J. M.

Lekuona, *Ilargiaren Eskolan*, 1979, 13; *Historia de la Lit. euskérica*, 1979, 299-306). Lekuonak maiz-sarri kontatu du, nola hasi zen bera bertsolarien alde: Goethe eta Schiller irakurtzen omen dituzten baserritar alemanen aldean hemengo baserritar inkulto bertsozaleak mespretxatzen zituen bategatik. (Bertsolarien prestijio faltaz ik. Lekuonaren *Aozko Literatura*, 136/7, 188, 213/4, 238, 546 or.). Aspaldikoa hori dena.

Iztuetak berak aipatzen ditu bertsolari eskolagabeen bizkarretik farrez eta burlaz egoten ziren harrosko tentelak, eskolatu ustekoak, «jakinduriaren gordeleku guziak gañez egiteraño beateak dauzkatela uste duten orietakoak». Iztuetak dioenez, parajeotako zenbait alkatek debekatu ere egiten zituen bertso saioak publikoan, dudarik gabe «inmoralkeriagatik». Apezak eta predikari moralistak apenas izango zituzten adiskideago.

J. B. Camoussarry (1815-1842) apezak, adibidez, bertso gorrorak atera zizkion berak «basa koplariari»: «tripa arnoaren suaz / duenian berotua / ergelkeria kantuz / hausten dautzute burua». Eta infernura bidaltzen zuen bertsolaria: «Ikara hadi, tristeia / laster bahoia hobirat. / Ikusak hire zortea / kantuz hoa infernurat».

Prai Bartolomek, Agirre Asteasukoak, etab., kanta lohia kondanetzen dute, ez bertsolaria, baina textuinguruan gauza bat eta bera duzu agian (Axularrek, aldiz, dantza desonestoak bai, baina ez du aipatzen kanta lohirik). «Impernuco espiritu loijak aguertu dituban astucijac, dira oraingo gentiaren cantaric gueijnac, pecatuco sarian, asco igarri baric, arimac sartuteco. *Canta loijac esaten dituban auac*, dino San Ciprianoc, *Basilisco verentso batec baino vereno gueijago zabalduten davela, entzuten davenen vijotzetara*. Pecatu andija ta ascori pecatu eraguiteco, vidia da, neure cristinaubac, canta desonestubac cantetia»⁷.

Agirre Asteasukoa baitan (*Eracusaldiac*, II, 1850, 145: Emezortzigarren itzaldi edo platica, 9) pasarte bat aurkitzen dut, alkate bertso saio debekatzailleen eta fraile moralistaren lotura esplikatu lezakeena: «Españaco legueac aguintzen du, ez dezala iñorc ere esan, ez cantatu itz desonestoric, ez gauaz, ez egunaz, caleetan, placetan, eta bideetan, eun azote eta urte betearen deserrituric vicitzeco penaren azpian». Prai Bartolomeran *Gatz-Ozpinduba*-n dantzen debekuaz eta debekuaren alfer-alferrika-koaz egiten dira kontsiderazioak (*V. Capituluba*).

Antzina-antzinakoa hori dena, bestalde: herriaren artea beti izan da goikoen begitan dorpea eta eskasa eta itsusia. «Mester traigo hermoso, no es de juglaria /, mester es sin pecado, ca

es de clerecia», hasten da *El Libro de Alexandre* (est. 2), alderdi biak —*clerecia: hermoso / sin pecado*— ederki bateratuz.

Hauxe berau ere azterkizun dago gure literaturan. Alegia, herri artearekiko deskontsiderazioa, askotako errepresioa, immoralala omen zelako, edo arte eskasa zelako. Prai Bartolomeren eta Prai Bartolome bezalako askoren eritziak ezagunak dira «gueure errijeetaco zeceneen, ezpata dantzeen, desapijozco burruqueen, maquilaqueen, ezpataqueen, comedijeen, dantzeen, ta convidau teguijeen» aurka. («Opicijo impamia ta pacatuzcua» da, adibidez, komediak egitea). Bertsolaria ez zegokeen, beren garaian jogleareak eta trobadoreak baino, Elizak hobeto ikusita.

3.1.3. Alabaina, aipamenak eta dokumentuak (Mogel, Zamakola, Iztueta, Gorosabel) hasten zaizkigunerako, bertsolaritza gauza oso zahar bezala kontsideratua dago eta, inportanteago dena: 1. forma aldetik, eboluzio haundi baten buruan bakarrik esplika daitekeen heldutasunez, eta 2. sozialki ere, gizartean ongi finkaturik dagoela erakusten duten seinalez (desafio, inoren kontrako bertso ateratze, etab.), agertzen zaigu agertu, XVIII. mendearen azken alde horretan. Eta, esan bezala, Euskal Herriko punta batetik besteraino hedatua.

Handik aurrera dena ilun dagoela, esan ohi da. Baina piska bat osatu edo zuzendu beharra legoke eritzi hori, itxura duenez.

Bi aldetatik hartuko ditugu arrazoiak: bertsolaritza edo, badauden testigantza batzuk aipatuz —eta bertsolaritzaren hurbiltasuna susmarazten duten daturen batzuk aipatuz euskal literaturatik.

3.2.1. L. Mitxelenaren eritzian, gutxienez Garibayganainoko tradizioz kontatu behar dugu bertsolaritzan (*Hist. de la Lit. Vasca*, 1960, 25): «La tradición [bertsolariena] es antigua y se remonta por lo menos a las damas improvisadoras en verso del siglo XV de que nos habla Garibay». Eritzi komun samarra, bestalde: J. M. de Leizaolak, etab., ere segitu dutena⁹.

3.2.2. Bizkaiko Foru Zaharrean (idatzita 1452an jarri bait da) bi pasarte txit interesgarri badira baztertu ezinezkoak:

Titulo 35, Ley VI: ...de aquí adelante quando quier que alguno muere en Vizcaya o fuera de ella, por mar o por tierra, persona alguna de todo Vizcaya, Tierra llana, villas e ciudad no sea osado de hacer llanto mesándose los cabellos ni rasgando la cabeza, ni haga llantos cantando..., so pena de mil maravedís a cada uno que lo contrario hiciere por cada vez».

Hiletariok egiazko bertsolariak, inprobisatzaileak, zirela, Ga-

ribayk testimoniatzten digu: «Mataron a Martín Bañez junto a Ibarreta, caserío suyo... Doña Sancha Ochoa de Oçæeta hizo gran llanto, muy usado en este siglo, por la desgraciada muerte de Martín Bañez, su marido, y soledad suya y de sus hijos, y cantó muchas endechas, que en vascuence se llaman *eresiac*». Eta Milia Lasturkoak bereak bota bazituen, «a estas cosas respondió Doña Sancha Hortiz... hermana de Pero Garcia de Oro los versos siguientes». Ohitura honetaz ik. baita ere Ibarгүйen-Cachopin-ena Lopez de Harokoaz, L. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 1964, 101.

Foruaren debekuak, halere, ez zuen izan nonbait efektu gehiegi: ohiturak aurrera segitu zuen⁹.

Are interesgarriagoa iruditzen zait Foru Zaharreko bigarren pasarte:

Título 8, Ley I. En qué casos se puede proceder de Oficio, y prender, sin que se llamen los Delinquentes só el Arbol de Guernica.

Primeramente, dixeron: Que havian Fuero... salvo sobre [...] y sobre Mugerres, que son conocidas por desvergonzadas, y rebovedoras de vecindades, y *ponen coplas, y cantares á manera de libelo infamatorio* (que el Fuero las llama profazadas).

Horixe besterik ez bait da, inori bertsoak jartzea! (Hola moduzko asunto bati buruz ik. L. Mitxelena, *Textos...* 127: «Pasquines de Tolosa»).

Ohartxo bat, hemen: antzinako euskal bertsolari edo inprobisatzaileen artean emakumeak behin eta berriro agertzeak —«endechas de mugeres que por conservación de esta vejez las he querido referir», dio Garibayk—¹⁰, ez gaitu eraman behar horretan ere euskal berezitasun bat ikustera, horrelakorik ez dirudi eta dagoenik. Trobairitz aristokratikoak —Dieko Kuntesa, adibidez— eta joglarisa guztiz kontsideratuak aparte, Erdi Aroan gora korrientiak ziren herriz-herri eta feriaz-feria, erromerietan nahiz peregrinazioetan, jendearen era askotako entretengarri, ibiltzen ziren andre kantariak. Eta, badirudi, beti ez zela kantatzea bakarrik izaten andreon ofizioa... Oso harritzekoa ere ez da, Elizako moralisten textuek eta Eliz legeek erreparraren batzuk izan ohi bazituzten joglarisa edo andre bertsolari, eta beste gauza batzuen lari, hauei buruz.

XIV.tik XVI. mendera arte, bada, Euskal Herrian baziren

bertsolariak, eta andre bertsolariak bereziki, dama aristokratiakoak nahiz «profazada»k.

3.2.3. XVII. mendean, Oihenartek «combien que les Basques aient assez d'inclination à la Poesie...», esaten badu, batez ere bertsolariatzagatik esango zuela, pentsa genezake. *Notitia*-n (1638koa da) espreski «bertsolari arruntak» aipatzen ditu aipatu ere²¹. Baziren, beraz, bertsolariak. Eta zaleak bide ziren euskaldunak.

Mende bereko beste textu batzuk, bertsolariatzaz eta euskaldunen bertso zaletasunaz, Joanes Etxeberri Ziburukoa baitan dauzkagu, garbi askoak (*Manual Devotionezkoa*, 1627):

Guiristinoa, eman diat escarazco versutan
Catholico manuala neure asti ordutan
Ikhussiric nola bainaiz iaiatcen escalduna
Gure natioa dela copla maite duena.
Hartaraco iaquiara diat versus eçarri
Lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri.

Mende honetan bertan ikusten dugunez, Bizkaiko Eliza ere kopia edo bertsoez baliatzen zen jadanik dotrina irakasteko: ik. «Coplas a la Encarnación y Nacimiento de nuestro Señor Iesu Christo», —Del catecismo de Nicolás de Zubía, 1691», in L. Michelena, aip. lib. 138. Gabon-kanta da, bestalde

Mikioletak (1653) ere aipagarri dirudi: «Dexando a las coplas de *Lelori, lelori*, que suelen cantar las moças los días festiuos, que no entran en la mas *graue poesia vazcongada*, ordinariamente ay en nuestra lengua dos modos de versos... digo hablando generalmente, porque abajo dire de otro genero de versos que *no son vulgares*». Bertso «vulgar» horiek ere baziren, beraz. Eta zortziko haundian eta txikian hain zuzen.

3.2.4. Azkenik, XVIII. mendean, eta besteak beste, «Sor Luisaren» komedian (*Gabon-Sariak*) «Martin Beltz» koplari bat aipatzen da, Autorearen laguntzailea, gero, Arestiren ustez, egiazko Barrutia ere bera izan omen baita da.

3.3.1. Eta propio bertsolariatzazko texturik ba ote dago? Ez, nonbait; edo apenas behintzat.

Halere, inolaz ere ez dira baztertzekoak, bertsolariatza zaharra estudiantzeko orduan, Mitxelenaen *Textos arcaicos* liburuan jasotzen diren koplak eta kantak, Azkue eta Aita Donostiaren kanta bildumak.

Lehenengotik badirudi, lehenago ere bertsogintzarik eta za-

letasunik egon dela jakiteak, bertso texturik, produkturik, egon ez badago, ez digula ezer laguntzen. Baina soluzioa ez da hain sinplea: zerbait lagun liezaguke, esate baterako, euskal literaturan —herri-literaturan bereziki— folklorea eta, dagoena, beste begi batzuekin ikusteko. Ez ote dagoen, uste den baino «bertso» gehiago euskal literaturan?

Beharbada, eta hasteko, Autoreren batzuk bertsolari bezala, edo bertsolari bezala *ere* behintzat, kontsideratu beharko ditugu, bertsolarien historia dokumentatua zerbait luzatuz: Basterretxea (1700-1761), Meagher (1703-1772), Robin (1738-1821), Salvat Monho (1751-1821), etab. —agian, Barrutia, Etxeberri Ziburukoaren zati batzuk, etabar—. Autoreok nekez esplika bait daitezke, nik uste, behar bezala, barnean edo aldean bertsolaritza bixi-bixi bat suposatu gabe garai berean.

Baita ere, euskal liburu zaharretan maiz publikatu dira bertso puxkak (Tartasenean; Etxeberrirenetan —«Burlatzen naiz Garibayez» famatu hura, esaterako, Klaberiarrena—, etab.): bertsolaritza baten agergarri izan daitezkeenak eta bertsolaritzaaren historiak kontuan hartu beharrezkoak.

Baina gehiago dago: beharbada —beti beharbadaka ibili behar— bertsolaritza esaten dugun hori, ez da beti gauza bat eta bera izan, berdina, uniforme, eboluziorik eta transformaziorik gabekoa. Bere gorak eta beherak izan ditu agian mendez-mende, kultura eta maila sozial desberdinen arabera iharduntoki desberdinak ere izanez. Ez da berdin ganboinoen garaitzapenak ospatzeko banderizo kantak egiten zituen bertsolaria XV. mendean, erromeria eta peregrinazioetan zebilen bertsolaria XVII. edo XVIII. mendean (sermolariak espantatzen zituena), plazan edo sagardotegian desafioka zebilen bertsolaria XIX. mendean eta Baldan txapelketa batetara presentatzen den bertsolaria XX.enean. Eta, XV. mendean, banderizoekin zebilen bertsolaria (bera ere jauntxo bat edo dama bat beharbada), alde batetik, eta «profazada»k eta hiletariak bestetik, baldin bazeuden, beharbada gaur bertson ere «gauzak» daude bertsolaritza, diferenteak, berezi beharrezkoak, eta ez eskolatu eta eskolagabekoak bakarrik, edo nekazariak eta artzainak bakarrik.

3.3.2. Berriro historiara gatzela, begira *erromantzeak*, esate baterako: erromantzeak, lirika herritarrean edo kantategian (folklorea) aipatu ohi ditugu. Baina bertsolariak ere egiten dituzte erromantzeak (zer besterik da «Markesaren alaba»?). Baina poetek ere egiten dituzte... Beraz, bertsolaritza, isolaturik ez beste gutzia ageri zaigu, lirika herritarrari nahiz poesiari lotu-loturik,

beharbada epika zaharrari berari («Bereterretxen kanta» erroman-tze bezala estudiatzen du Leizaolak). Mugak irristatu egiten dira.

Baina erromantzeroa bera dago estudiatu gabe (Leizaolaren *Romances vascos y literatura prehistórica* ahaztu nahi ez badugu ere) eta gutxiago bertsolaritzarekiko haren erlazioak.

3.3.3. *Kopla zaharrak*: Lekuonak dioenez, kopla zaharrak ez dira antzinako bertsoak besterik, memoria kolektiboan gordeta («kopla zaarrak, leengo Bertsolari Zaarrak egiñak dira; noizpait nunbait kantatu, eta gero Erriaren gogoan geldituak, eta, gaur oraindik, egun jakiñetan, errietan kantatzen diranak», *Aozko Literatura*, 83). Horra, bada: kopla zaharrak, Urte Zahar eta Gabon-kantak, San Joan, Santa Ageda, Inauteri..., horra, bertsolaritzatik atera gabe, non gabiltzan folklorean guziz sarturik. Ulertu ere, ez ote dugu hori dena beti bertsolaritzatik ulertu? Sortu ziren bezalaxe.

3.3.4. Eta behin folklorean sarturik, beste zenbait erlazio gehiago aurkitzen diogu bertsoari: atsotitz edo *errefrauak*, *herri-otoitzak* (ik., adibidez, A. Donostia, *Euskal-Erriko otoitzak*, Egan 2, 1956, 34-52. Orixek, ritmoak ezer sofritu gabe, poemako bertsoetan ederki muntatu dituen atsotitzak eta herri-otoitzak), *toberak*, *eliz kantak* (oso loturik datoz a) Arantzazuko erromantzeroa, b) Arantzazuko eliz kantak, c) Arantzazuko poesiak), *haur-kantak* berak..., produkzio erimatu guzia, azken batean.

3.3.5. *Teatroa* bera ere, pastoralak eta alegia, baita XVIII. mendeko teatro gipuzkoarra ere, Arestiren eritzia ekarriko dut bakarrik, Barrutiaren teatroaz: «bertsoak oso errikoiak dira, gizon jakintsu baten eskurik ezta bertatik azaltzen». Horrek pentsarazten bait zion, Autorea ezin izan zitekeela Barrutia eskribaua, koplari herritarren bat baino.

Gure teatroak zergatik hartu duen forma hori, bertsolaritzak esplikatzen duela, ematen du.

3.3.6. Hemen problema batzuk sortzen zaizkigu eta lehenengo bertsolariaren kontzeptuarena, irudiarena.

Gabon-kanta eta kopla asko bertsolaritzan eta bertsolaritzatik sortu dela (sorlekua), ez du inork dudarik egiten. Beste batzuk beharbada ez: Bizenta Mogel ez zela bertsolaria, esango da... Eta Barrutia? Iparragirre ere, bat baino gehiagorentzat, ez da bertsolaria. Ni ez naiz aklaratzeko, mugak non jarri nahi izaten diren kontu honetan (eta ez dut uste, instintoaren edo senaren egin-kizuna denik lan hori). Eskolatu bat, eskolatua delako, edo pla-

zaz-plaza ibili ez delako (eskolatu batentzat nekez pentsa daitekeena XVIII. edo XIX. menderako), bertsolaria ez baldin bada, bertso ederrak jarri arren, agian bertsolari eta bertsolaritza kontzeptu peligrasoz gabiltza, literatura aldetik behintzat. Eta ni beldur naiz, bertsolari kontzeptu soziologikoago batekin ez ote gabiltzan, literarioarekin baino. Bertsolari kontzeptu folkloriko batekin ere. Zergatik ez da markes bat edo eskribau bat bertsolaria izango? Produktua da, begiratu beharko duguna. Eta Barrutiaren koplak, behintzat, Arestiri koplari on eta herritar xume batenak iruditzerainokoak dira. «Sor Luisa»ri M. Lekuonak egi ten dion iruzkinak ere, Autorea zergatik ez dugun bertsolaritzat hartu behar, pentsarazten dit niri, bertsolari baten dohain guztiak baditu.

«Gabon-kantak», ordea, badu interes berezi bat euskal literaturan, hemen, nolabait, folklorea eta bertsolaritza «vulgarra» ezezik, bertsolaritza kulta, poesia (Etxeberri Ziburukoak: *Noelak*, Oihenart: *Eguberrri-Koplak*), teatroa (Peñaflorida, Barrutia), etab. elkartzten zaizkigu eta. Gainera, literatura idaztaren hastapenetan beretan ageri dela Gabon-kanta, esan genezake, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean. Etxeberri eta Oihenart aipatu ditugu, biak XVII. mendekoak, Iparraldean. Gure aldean beranduago hasi da euskarazko literatura idatzia —XVIII.ean— eta Gabon-kantaz hain zuzen. Hemen, berriz, ohitura bide zen, Gabona ospatzeko beila kulturalak edo poetikoak edo egitea, kantaz eta koplaz eta musikaz, parroketan nahiz etxe partikular hoberentxoetan. Ez gaude alferrik Ilustrazioaren mendean. Beila eta «ikuskizun»otara ez zuten agian gonbidatuko herriko moxkorra, bertsolari «vulgarra», deskuidatu orduko eskandalo bat sortuko ziena eta bestela ere lagunarte fin hartan kabitzen ez zena: baina bertsoak (koplak) ez ziren halere beila eta festaotan faltatzen, bertsolari hoberenaren tamainan eginak gainera. Egileak? Hamai ka Barrutia eta «Sor Luisa» anonimo... Lekuonak komentatzen duen 1705eko hura bezalakoak: «Umore onekoa alde batetik, eta kantagifan ez bertsolari motza beste aldetik. Iraizean eta nolainai eginak diruditelarik, oso ederki antolatuak dirudizkigu guri bertso oiek. Errikoi, alde batetik; eta naiko letradun, bestetik. Oso 1705gn urteko. Gerotxuago Azkoitiko «zalduntxo» antzekoa agiri zaigu oien egillea» (ik. M. Lekuona, *Gabon-kantak*, Egan 5/6, 1956, 28). Segidan jende xumearen XVIII. mendeko beste Gabon-kanta batzuk dakartza Lekuonak: «Erdiok gera oiagizonak / beste erdiok arotzak», etab.

3.37. XV. mendean damak eta «profazada»k, eta XIX. men-

dean bertsolari eskolatuak eta gabeak bezalaxe, bertsolari «ilustratuak» eta «vulgarrak» ikusi uste ditut nik hor, eta XVIII. mendearen hasiera-hasieran.

Horrelako Gabon-kantak, *ad casum* eginak eta urtero-urtero berriak asmatuak, paperean idatzi egiten ziren, batzuetan inprimatu ere bai, Bilboko frantziskotarrek adibidez. Eta hortik hartu du «bertso paperak» bere abiada (ik. prozesu hau in A. Zavalala, aip. lib. 31-34 or.

3.3.8. Azkenean haxe da, esan nahi dena: euskal literaturan, «bertsolariaren» presentzia, «bertsoak kantatzea» esaten diogun lan horretan soil baino askoz gauza gehiagotan somatzen dela. Konstante bat bezala da literaturaren historia guztian. Metodikoki aztertzeke dago, ordea, sustratu edo delako hori.

4. — Egiazko hastapenak: Periodo Epikoa

4.1.1. Euskalduna euskaldun denez gero kantaria edo dela esan ondoren, prehistoria utzi eta honela idazten du Gorostiagak:

Entrando en la época histórica, Estrabón refiere que los iberos —los turdetanos, en particular, del sur de la Península— poseían poemas de 6.000 versos (de 6.000 años, da otra lectura) y que todos ellos conocían la escritura y escribían en sus respectivas lenguas. El mismo cuenta que los Cántabros, vecinos de los vascos y con los que siempre marchaban juntos al combate en las guerras púnicas, según escribe Silvio Itálico, cuando marchaban al suplicio, entonaban su cántico de victoria. En otro pasaje refiere el geógrafo griego que los iberos del norte celebraban con danzas y cantos la fiesta nocturna del plenilunio, y da también detalles etnográficos sobre las danzas e instrumentos músicos en su obra. Más tarde, en las crónicas francesas, vemos que San Amando, el convertidor de los vascos (siglo VI) es forzado a dejarlos, porque un juglar (un bersolari diríamos hoy) interrumpía frecuentemente sus predicciones.

Estrabonen kontuak eta San Amandoren komeriak, kanta-broen kantak gurutzean eta ilargi betearen himnoak mendi kasakoetan, asko aipatzen dira gure bertsolaritzaren inguruan. Oso romantikoa da. Datu kuriosoak ere badira apika, kuriosoak. Baina ez da ikusten zer ikusi behar duten gure kantategiarekin edo bertsolaritzarekin, zer lagun liezaguketen bertsolaritza modernoa (historikoa alegia) edo haren sustrai historikoak hobeto argitzeke¹².

4.1.2. *Beowulf*-en ikusten dugu, nola behin danoen erregeak batailaren ondoren jigante bat guztien aurrean kantatzera gonbidatzen duen, garaitzapena ospatzeko, eta jiganteak, zutitu eta, kanta bat inprobisatu egiten du. Ez da, noski, «poeta profesional» bat, melodia baten gainean bat-batean bertsoak asmatzeko dohaina duen gudari zakarra baizik, hazainak kontatzen eta garaitzapena ospatzen. Dirudenez, gudari germanikoen artean dohain hori ez zen hain bakana eta *Beowulf*-en ikusten duguna, ohiturazkoa zen bataila ondorenetan.

Anekdotak honek badu, nire ustez, antz-antzeko bat euskal historian. Oñatiarrek eta leniztarrek hartu zuten behin asmoa, XIV. mendearen azken aldera, beren arteko auziak eta istiluak behin betiko armaz erabakitzeko Urruxola gainean. Egun seinalean han elkartu ziren pelearako, aurrez-aurre, «y sin dar lugar a largos ni prolijos razonamientos, se resolvieron de manera que sobre muchos muertos y descalabros fueron los lenizanos desbaratados y vencidos, y quedaron los de Oñate vencedores, aunque a mucha costa de Pedro de Garibay, su caudillo, que de una herida que entre otras le dieron en la escaramuza, murió dende a pocos días... Pero sentía tan poco el daño de sus heridas del gozo y contento que llevaba de haber vencido a sus contrarios, que se dice de él que venía cantando aquel *lelo* viejo que aún al presente dura...» (*Textos Arcaicos*, 70/71).

(Gudari-kantariaren tradizio honetan, ezin aipatu gabe utzi zenbait bertsolari karlista ere, haien bertsoei askotan polbora usaina aditzen zaie eta oraindik).

4.1.3. Antzinako herriek —eta zergatik ez gureak— inprobisazioa ezagutu dutela, gauza garbia da. Baita beren gudu ekin-tzak eta heroiak kanta epikotan gogoratu ohi zituztela ere. Baina gure XIV, XV, XVI. mendeetako kanta epikoak eta plainuak xuxen-xuxen Estrabon edo lehenagotiko euskal tradizio poetiko (bertsolari) etengabe batetan txertatzen direla suposatzea, suposamen askotxo da eta oinarri gutxi, historiaren burutaera miragarri samarra ere eskatzen duela aparte. Gure iparraldean nahiz hegoaldean, behintzat, Orreagako batailaren garai inguru hartan, zeharo dekadentzian zegoen kantari epikoen ohitura, aspalditxoan, erregeen eta herioen kronistek lehenagoko kantarien lekua hartuta. Eta bertsolari edo inprobisatzaileen hurrengo «ziklo» haundia Europan ez da epikoa izango, trobadoreena baino, dexente geroago. Bertsoak eta kanta agian herri xumean iraungo zuten, baina, egun esango litzakeenez, kreaioari eragiteko klase sozial bizi bat ez du izan bertsolaritzak denboraldi batez. Roldan-

en kanta gero sortuko da, XII. mendean, eta ez VIII. edo IX. enetan. XIV. mendeko zaldun feudalak (edo «jauntxoak»), sozialki nahiz kulturalki, ez du X. edo VI. mendeko gudari basati inprobisatzailearekin zerikusirik gehiago, Ahaide Nagusien borrokek eta behiala euskaldunek bisigotoekin izandako gerrek batak-bestearekin baino. Haustura haundiegia dago tartean.

4.2.1. Gure literaturako —bertsolaritzako— lehenengo datuak XIV. eta XV. mendeetakoak dira. Euskal Herria kristauturik dago (haustura kultural haundia adierazten bait du), etab., bat gehiago da mendebaleko gizarte feudalean, beste herriekin harreman bizi-bizietan. Nondik sortu dira «profazada»k, damak, gudari buruzagi bertsolariak...? Erantzun zehatzik ez badakigu ere, gauza bat dakigu: aurreko mendeetan, Euskal Herria, era guztietako influentziak gurutzatzen ziren barrutia izan dela; eta horien artean kanta eta bertso influentziak ez zirela falta izan. Inportanteenak, zalantza gabe, Elizarenak, eliz kantarenak. Baina nik, orain, beste bi alderdi aipatuko dut: 1) arabeekiko erlazioarena eta 2) jogleare euskaldunena.

4.2.2. «De la época árabe —irakurtzen diogu Gorostiagari— conocemos el testimonio del historiador Al-Makari en tiempo de Abderramán II (888) al hablar de «las esclavas vascas» y en particular de una tal Kalam que se distinguía —dice— «por la perfección del canto, exquisita elegancia y pulcra urbanidad y cultura» en la corte de los califas cordobeses». Hau ere sarritan aurkitzen den aipamena da: C. Echegaray, P. Urkizu (*Lengua y Literatura Vasca*, 1978, 85), J. A. Arana Martija (*Música Vasca*, 1976, 46), etc., etc. 888 urruti samar da, baina, dena dela, interesatzen duena zera da: euskaldunen eta arabeen artean interkanbio literario-kulturalik egotea.

Interkanbio kulturalaz, arruntki (medizinan edo arkitekturan, adibidez), dudarik ez dago. Gorte arabeetan kantak eta inprobisazioak zuten gora ezaguna da bestalde (emakume inprobisatzaileena bereziki). Interkanbio poetiko-musikalik ba ote zegoen? Bai. (Nafarroako jotaz ez dagokit niri hitzegitea). Musikalari eta kantari arabeen presentzia Nafarroako Gortean aski dokumentatua dago: Vianako Printzearen ezteietan, adibidez (1439). Eta Al-Higari Guadalajarakoak, esate baterako, berak nahi baino gehiago egon behar izan zuen Euskal Herrian: preso. Poeta hori nafarrek preso atzeman zuten bataila batetan, 1138an, eta gaixoak bertsotan idazten zien adiskideei Alkalara, reskate eske. «Hona ni hemen Bizkaia hotzean preso», da haren kanta baten hasieraren itzulpena¹⁸.

(Zernahi dela ere *Leloren kanta*, eta euskal neskatzek XVII. mendean oraindik «coplas de Lelori» kantatzen bazituzten —eta gogora Salinasgo Kuntearena, Perutxorena, goian aipatutako oñatiarren buruzagiarena, 4.1.2.— etab. ik. Azkue, Hitzegian, *Lelo* hitza eta *Kelimah* arabeari alusioa, zuzena ala okerra).

«En el primer tercio del siglo XV —idazten du Arana Martijak—, juntamente con otros juglares y músicos extranjeros, aparecen en la corte de Navarra nuestros bertsolaris [?] Ancho de Echelecu, a quien el rey costeó un laud en 1424...», etab.¹⁴. Laud bat? *Laud*-a, Nafarroan, Kaparrosoko kanposantuan ikusten dena egiaz hori bada, XII. mendeaz gero ezagutzen da (estudio ikonografikoak zehazkiago begiratzerik ez dut izan). XV. mendean «laud-jotzaile» ofizioa ere bazegoen Nafarroako Gortean. Laud-a, aldiz, izena eta izana, kantari arabeen eta gero joglearen lagungarria, oraingo kantarien kitarraren antzera, arabeek emana da (*al 'úd*).

«Andre Emili, andre gora» dela eta, arabeekiko euskaldunen erlazioak aipatzen dira: mairu herrira saldu omendako euskal nesken plainua. Beharbada bide honetatik, arabeekiko zerikusi poetiko-musikal posibleenetik, gehiago sakondu beharko genuke.

4.2.3. Euskaldun jogleareena zen beste puntua. «Porque sabemos que en la Corte medieval de los reyes de Navarra había juglares que cantaban en vasco y en lenguas romances (o a veces, mezclándolas, en canciones burlescas)»¹⁵. Azkeneko hori, hizkuntzak nahastea, Nafarroako jogleareek bazerabiltena baldin bada, tradizio dextenteko usadioa dugu eta agian luzarorakoa oraindik¹⁶.

Trobadoreak XII. mendeko fenomenoia dira propioki, XIII.aren azkenetara arte luzatuz. Hiriak hazten, indartzen hasi direnekoa (lehen burgesia bat aipa liteke, Tolosako Lore-Jokoak ospatzen zituena esaterako). Baina trobadoreen eragintza haundia XIII.etik aurrera nabariko da European, Espainian eta Portugalen adibidez, eta XIV. eta XV. mendeetan oraindik ez da haien influentzia galdu (Dante, Petrarca, etab. lekuko Italian bertan). Beraz, guri dagokigula, trobadoreen influentzia XIII. mendetik aurrera aisa suposa genezake, hots, Champagneko etxea Nafarroan erregetuz gerozkoan. Tibalt I Champagnekoa, trobadorea bera tronuan eta mezenas haundia, izan liteke «bertsolaritza trobadoresko» baten desarroilo abiarazlea Euskal Herrian¹⁷. Halere, Gortetik baserrira bide luzea dago, erromantzetik euskarara adinakoa gutxienez, eta jogleare euskaldun bezala

aipatzen direnak Nafarroako Gortean agertu arte, denbora asko pasako da.

Begira C. Claveriak zer dioen (Higinio Inglés ikusterik ez dut izan):

...El pueblo vasco dio notables trovadores y juglares durante la Edad Media, entonando endechas al amor y a la caballería. Conviene citar a Arnaut Guillén de Ursúa, Ancho de Echalecu, García Churri, Bernard de Oyón.

Por documentos que se conservan en el Archivo de Pamplona, sabemos de algunos juglares que brillaron en los siglos XIV y XV. Así aparece en 1328 un juglar judío que vivía en Pamplona, llamado Gento Bonafoux, Juan de San Lauranis, arpista, tal vez el mismo que Johanin de Larpa, juglar de Mossen Carlos, probablemente el futuro Carlos III, que en 1378 tenía por lo menos «cuatro juglares de altos instrumentos». También aparece como arpista del rey Pierre Carreros, que al mismo tiempo era su «criado de cámara».

Por la corte desfilan con cierta frecuencia juglares extranjeros, como Jaquet de Noyon, juglar de cuerda (1388); varios juglares del rey de Inglaterra, cuatro más del duque de Borbón, Jaquet de Bar, Pedro Alibert, «juglar de boca», Juan Alemán y Conrado, menestrales de laúd y viola (1407) y otros «sonadores de arpa, órgano y laúd».

* * *

En tiempo del rey don Juan, cuya corte, verdadero florilegio de canciones, era admirada, hubo dos trovadores que se hicieron célebres, Juan de Carranza y Fernán Moxika, los cuales recorrieron todos los caminos de Navarra, Aragón y Cataluña, llevando la luz de la poesía a los barones que encerraban sus vidas entre los sombríos muros de sus castillos. Todo esto indica que la música y la canción eran cultivadas en Navarra, organizándose incluso concursos de canto en los que se comparaba la floración de la primavera y la riqueza del verano con la belleza de las mujeres.

Muchos caballeros y altos dignatarios se sintieron poetas y músicos para cantar la belleza de la mujer y el poder irresistible del amor que arrastra a «dulces locuras».

(*Historia del Reino de Navarra*, 1976, 573/574).

Gure kanta zaharretan, erromantzeetan, etab. zenbatetaraino trobadoreen eragina sentitzen den, eta egungo bertsolarienganaino iristen den hura, xeheki estudiantu beharra legoke. J. M. de Leizaolak arazook zerbait aztertu ditu¹⁸.

Dena dela, euskaldunek trobadoreak ezagutzen ote zituzten, gauza seguruegia ez bada ere, ondo segurua da, trobadoreek berrek ezagutzen zituztela euskaldunak: «Nom platz companha de Basclos / ni de las putanas venaus», kantatzen zuen Bertrand de Born aristokrata gerra eta trobazaleak, Dantek infernuan Mahometen ondoan pintatu duenak. Ez euskaldunen eta ez puta garestien lagunartea gustatzen zitzaion. Zer egingo diozu.

Objezio bat egin daiteke: gure kanta zaharretan isladatzen den giro soziala, trobadoreen poesiakoaren, amodio eta udaberrikoaren justu arras kontrarioa dela. Borroka eta gerra giro beltzekoak dira gure kanta zahar denak. Nafarroan bertan ere, ordea, Gilen Anelierkoak «Iruñeko gerra zibilaren» poema asmatu zuela, ezin ahantz genezake. Eta Beotibarko kantak, 1321eko jazo bat, hots, kanta zahar haietan gogoratzen den jazo zaharrena, kantatzen duenak, hain zuzen nafarren eta gipuzkoarren arteko borroka du kantatzen. Gainerantzean, ohar guztiok ez dute idaroki nahi, trobadoreen eragintza direkto eta begien bistako bat dagoenik euskarazko lehen textuetan edo bertsolaritzan.

Eta, azkenik, ez dira zentzu hertsia-hertsian hartu behar hor esan diren trobadore eta joglare horiek, ez eta influentzia bidea derrigor Nafarroatik zetorrenik ere pentsatu behar da, banderizoen kanta zaharrak sortu ziren momentuan. Banderizoen borroketarako paraje horietara Gaztelatik zuzenean zetorkeen influentziak, ez dirudi, txikiagoa izan behar zuenik. Eta, hain zuzen Gaztelan, gudu-erromantzero aberatsa dago: muga erromantzeak eta moriskoak aparte, Pedro Krudelaren erromantzeak, adibidez, gerra zibil edo banderizo izpirituzkoak, ia denak Trastamaraen alderdi etsaikoak. Hendrike IV.ak —gure banderizoe-kin bai bait zuen zerikusirik— berak eginarazi zuen erromantze bat Granadako kanpaina ospatzeko.

5. — Landu beharrezko zenbait puntu

Historian, orain, ez zaigu historia bera interesatzen, lagun liezagukeena baino gure gaurko arazoetan. Ikusmolde horren arabera bakarrik arduratu gara goikoan historiaz. Eta ondorengoan horrelako problema mordoska bat bilduko dut, nabarmenago eta errazago ikus daitezten. Notaon xedea, orain gehienbat darabiltzagun eskema herstuak haustea, da, bertsolaritzaren estudioa plan zabalago batetan egin dadin.

5.1.1. *Historia aldetik*. 1801 aurretik «todo es oscuridad», «apenas se encuentra otra cosa que confusión y fragmentos». Bai, dena dago ilun: baina inork argirik egiten ez duelako; ez, agian, egiterik ez dagoelako.

Bertsolaritzaren hastapenen arazoan, batzuek mitora ihes egiten dute, besteak 1801eko muga seguru horretan anparatzen dira.

Eta historia hobeto ez ezagutzeak, parada txarrean jartzen gaitu, oraingo bertsolaritza bera ulertzeko: adibidez, gure bertsolariaren/bertsolaritzaren kontzeptuak, bertsolari modernoari buruz bakarrik egokitua dirudi. Edo desegokitua: askotan kontzeptu folklorikoagoa bait da, literarioa baino.

Zein da bertsolaria? Zer da bertsolaria? Bertsolariaren presentzia urrituz historian, bere baitan murriztu dugu bertsolaria.

5.1.2. Belaunaldiak eta bertsolari eskolatu/eskolagabeak berezi ohi ditugu. Aski ote da eskema hori klasifikapen batetarako? Estudiatu beharra legoke bertsolaritzaren eboluzioak, forma desberdinak, funtzio desberdinak denbora desberdinen edo leku desberdinen arabera. Eta agian ziklo nagusi batzuk berezi beharko dira: ziklo epikoa (XIV-XV), lirikoa (XVII-XVIII), «dialektiko» deitu dena (moderno), beharbada. Gizartea aldatuz, bertsolariaren funtzioa ere aldatuz doa. Aldatu egiten da bertsolaritza. Bertsolariak ez du funtzio berdina erromeria batetan eta gerran ari den bando edo batailoi batetan, Ahaide Nagusien borroka aroan eta ohitura gortesauak imitatu nahi dituen gizarte ilustratu batetan, hiletetan eta eguberri jaietan. Gero, ziklo bakoitzaren barruan, modu bat nagusi izan arren (periodoaren ezaugarria, dominantea), beste edozein modu kabitzen da: XIV. eta XV. mendeetan banderizoak/damak, profazadak, hiletariak kontatu ditugu. Bestelakorik ere bazen noski. M. Lekuonak, behintzat, xeheki aztertu duen Santa Klararen kanta zahar bat «zalantza gabe Erdiarotarra: XIV., XV. gizaldietan sortu»-takotzat dauka. Konbenturen batetan egina. Laugarren edo bostgarren mota.

Gehiago landu beharra dago bertsolaritzaren estudio soziala nahiz literarioa.

5.1.3. Eraginak, influentziak. (Eta, berdin, diferentziak, berezitasunak). Trobadoreenak, eliz kantarenak (liturgiko nahiz paraliturgikoenak), Erdi Aroko lirika latino profanoarenak eta edonongo poesia/kanta herritarrenak (mayoak, etab.), Santiagora bi-dean ez bait ziren penitenteak bakarrik igarotzen, eliz kantak kantatuz, baizik eta baita nola-halako jogleareak eta joglearisak

eta menestrelak ere, mimoen oinordeko zuzenak, beren bertso eta komeriekkin —euskaldunek beren bertsogintza propioa lehendik eduki zezaketena ukatu gabe. Ingurueneko herrietatik influentziak batez ere. Eragin posibleak asko dira. Indizeak ere nahikoa daude. Formalki estudiatzea falta da¹⁹.

Alor honetan bertso musikaren azterketak ezin baztertuzkoak lirateke.

5.2.1. *Literatura aldetik*. Hiztegia bera aztertu beharra dago. Mintzamoldea. Zer den puntua, etab. Kopla. Bertsoa *bondu* (*huntu*), *konposatu*, *ezar(r)i*, *egin*, *esan*, *kantatu*, *koblatu*, *bota*, *paratu*, *atera*, *jarri*, *ipini*... Eta lexikoa finkatu.

5.2.2. Bertsolarien azterketa literarioak egin, Lekuonaren lana jarraituz. (Rima azterketa kuantitatibo sinpleenak ere egiteko gaude eta rimari buruz teorizatzen ibiltzen gara). Espresioaren ritmoa, bertsolarien hizkera, errekurtsioak, mainak. Bertsolaritza eta literatura.

Seguruenik bertsolaritza, euskal literaturan, ez bait da forma bat gehiago, subgenero bat (vulgoaren arte poetikoa), baizik eta oinarrizko forma bat, genero diferentetan desarroitatu dena eta desarroilo kulto bat ere berdin-berdin ametitzen duena.

5.2.3. Ritmoarekin eta metrikarekin hor gabilza nahastuta. «Silabak ez, oñak», defendatzen du Lekuonak. «Le syllabisme est donc la règle d'or... pour la métrique basque», errepikatzen du Haritschelharrek²⁰. Agian, beste leku askotan bezala, eboluzioak, desarroiloak, modu diferenteak daudela, pentsatu beharko genuke gure azterketetan; eta ez oinak eta ez silabismoak balio digula beti, edo ez beti berdin eta testu guztietan. Patxi Altunaren ikerketak arazo hau erabaki samar ez badigu behintzat²¹: nolahi ere, azterketaon aplikazioak bertsolaritzaren historiara egiteko leudeke oraindik.

5.2.4. Prezeptiba baten faltaz, bertsolariaren/bertsolaritzaren kontzeptu faltan ere bagaude. Bertsolari tipifikatu jakin baten *irudia* eta bertsolariaren *kontzeptua*, definizioa, nahasten ari gara. Eta hori, bertsoa zer den, zerk mugatzen eta definitzen duen, zerk ezaguarazten (historian zehar aldatuz joan daitekeena), ez aztertzeagatik. Orduan, nola ez dakigun bertsolaria obraren aldetik definitzen, produktuaren aldetik (lehenengo obra bera definitzen jakin beharko bait genuke), subjektuaren aldetik definitzen dugu. Esango bagenu bezala: «poeta lirikoa, poeta zurbil flako bat da; epikoa, harri jasotzaile baten sasoi duena». Definizio subjektibo hutsa. Orduan inprobisazioa, asmaketaren bat-batekotasuna, definitzailetzat hartzen da²². Erlojua kriterio li-

terario bihurtuta. Baina bertso bat 30 segundutan botatzen duena ez da 60 segundutan botatzen duena baino doble hobe. Inprobisazioa, gehienez ere, kondizio jeneral bat izango da, ez bertsolariaren elementu definitzailea.

J. A.

¹ Lekuonarentzat koplak bertso zaharrak dira. Lafitten ustez «il ne faut pas d'ailleurs confondre *bertsolari* et *koblari*: le *koblari* n'est pas nécessairement un improvisateur, et le *bertsolari* est souvent peup soucieux d'écrire ou dicter ses poèmes», P. Lafitte, *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, 1941, 25-26. Harischelharrek, Etxahun buruz ari dela: «La synonymie entre *berset* et *kobla* est, somme tout, normale puisque chacun de ces termes désigne une strophe ou un couplet. Il est beaucoup plus de curieux de constater qu'Étchahun n'établit aucune différence entre *berset*, *kobla*, *kantu* et *khantore*», J. Harischelhar, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun*, 1969, 384. Oihe-nartek: «cantoretam, coblatam» (alegia, «in hymnis et canticis»). (Hegoaldeko bertsolariak ere «kantak jarri» / «bertsoak jarri» berdin bezala erabili izan dituzte). Ik. Etxeberri Ziburukoaren *Manual Devotionezkoa*-n *kobla*/bertso sinonimo bezala erabilita, bai Autorearen bai Gillentenaren testuetan. Beñat Mardok, halaber, *kobla* deritzo bertso inprobisatuari. Etabar, mila adibide. Larramendik berezi egiten zituela, ematen du, bertsoa («biursa»: oker ez banago, Otaño izan da gero bere bertsoetan hitz hori erabili duen bertolari bakarra) eta koplak («koplak», «lototsa» — «Hispanicus rithmus reciprocus»).

² Kantategian aberatsak direlakoxe, direla bertso gintzan pobreagoak, esateak, ez dirudi oso sinesgarri.

³ A. Zavala, *Bosquejo de historia del bertsolarismo*, 1964, 15.

⁴ «Gipuzkoarrak denbora guztietan eta beti izan dute itz neurtuak supituan eta ongi kantatzeko eresia eta jakinduri aundia». «Beste (ohitura) bat badute jatorriz gipuzkoatarrak guztiz miraritsu eta txit atsegingarria... itz neurtuak kantuz zortzikoan edo beste edozein neurritan supituan aotik aora alkarri ematea, antziña antziñako denbora doatsu aetan Arkadiar ospatsuak egin oi zuten bezelaxen».

⁵ «Cuando se atribuye al arte del pueblo un origen prehistórico, se hace la mayoría de las veces con el fin de salvar la originalidad que le atribuía el romanticismo, pero no para extender los límites dentro de los cuales se mueve», A. Hauser, *Teorías del arte*, 1975, 298.

⁶ Dena dela, Hiztegian, Mayansi burla egiteko, Larramendik berak asmatu duela bertso gisako zerbait ere, ezin ahaztu:

Chori-buru, puztua,
Ero, garbi, buztan, latz,
Nondic, hirí, ciquiñ, orri
Recaitz, aldía, eldu, zac?
Eztec, berdiñ, iguerrico,
Hitz, oy-etan, cer, datzan.

«Vea ahora si en este residuo de voces sale por ventura un capital de las reliquias de muchas lenguas antiguas...»

⁷ Prai Bartolome, *Icasiquizunac* II, 1817, VIII.

⁸ J. Caro Baroja, *Los pueblos del Norte*, 1973, 234-235: «El gusto por los cantos de carácter épico, en los que se celebran hazañas propias y las derrotas ajenas, no desapareció en el N. en la época antigua. Las canciones hechas en el siglo XV, con motivo de las luchas de los banderizos, y las del siglo XIX, salidas, por lo general, del campo carlista, suponen una continuidad, una tradición de siglos. En otro lugar he subrayado cómo el cantar de Aramayona, por ejemplo, que narra los apuros de Pedro de Abedaño en 1443, y una canción carlista recogida en Vera, que describe los apuros del general O'Donell en cierta acción de la primera guerra civil, hay cierta semejanza, cómo entre las bromas que contiene una canción contra el general Mina, también recogida en Vera, y las que hay en viejos cantos de banderías existen relaciones. Es que el género es muy viejo, y en su rusticidad se ha conservado hasta la época contemporánea».

⁹ Ik. R. M. de Azkue, *Cancionero popular vasco*, u.g., or. 16-17, zenb. XIX. Azkuek hagitz lehenagoko beste textu bat ere aipatzen du, hiletakantak alferrik samar debekatu zituen, alegia, Toledoko III. Kontzilioko 22. kanona (509ko maiatza), ik. aip. lib. or. 15, zenb. XVII.

¹⁰ J. Caro Baroja, *Los Vascos*, 1971, 358: «Sabemos, en efecto, que por aquellas épocas hubo mujeres de gran talento que con motivo de bodas, entierros, etc. improvisaban, cantaban, elegías u otras piezas adecuadas, existiendo verdaderas pugnas de conceptos entre ellas». Eta in *Los Vascos y la Historia a través de Garibay*, 1972, 330: «Según lo que se descubre por los fragmentos que da Garibay, la mujer vasca medieval es la poetisa elegíaca por excelencia: bien llore al marido y amenace con vengarlo, bien se rebelde en su amor contra la bárbara ley del linaje, bien se lamenta de la poca fe que conserva un viudo a la mujer muerta: hermana en tal caso de la poetisa. ¿Cómo se perdió esta tradición de poesía femenina? Sin duda con la vida aburguesada del XVI».

¹¹ Espresio orijinala ezagutu gabe ari naiz, Leizaolaren itzulpenean fi datuz. Cfr. *La «Crónica» en la poesía popular vasca*, 1961, 143: «bertsolaris ordinarios».

¹² San Amadeoren sermoiak hausten zituen pailasoari («mimilogus») ez bertsolari eta ez jogleare erizteko arrazoirik batera dago, bestalde. Ik. *San Amando y los Vascones*, in J. Caro Baroja, *Estudios Vascos VIII*, 1978, 9-37. 23-24 orrietan Baudemundoren eta Bollandus baitako anoniemoaren textu latinoak. Bertsolaririk ez da inon ageri.

¹³ H.-I. Marrou, *Les Troubadours*, 1971, 119.

¹⁴ J. A. Arana Martija, *Música Vasca*, 1976, 66.

¹⁵ J. Caro Baroja, *Estudios Vascos VIII*, 1978, 147. Hemen aipatu beharrezkoa da Menendez Pidal, *Poesía juglaresca y juglares. Aspectos de la historia literaria y cultural de España*, 1924, 129/130. Aipatzen diren jogleare euskaldunak, Arnaut Guilen de Ursúa el ciego (1412-1432), eta Sancho de Echalecu eta García Churri (1428 biak) dira.

¹⁶ Ik. L. Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 1964, 57 (Gonzalo de Berceo), 124 (Sor Juana Inés de la Cruz), 140-142. (*Bai Fedea* eta *Barbieriren kantategiko letrak*). Ik. halaber M. Lekuona, *Aozko Literatura*, 1978, 47 (haur-kanten azalpenerako: «Erdal-itzak tartean»); hemen magiaren arrazoa ematen da. P. Lafitte, *Herri Literaturaz*, in «Lur eta Gizon», 1974, 254 (xarnegu-koplak: eta konpara L. Michelena, aip. lib. or. 58, oración popular navarra).

¹⁷ Baina: «A finales del siglo XII tenemos tres trovadores, Peire Vidal, Ramón Vidal y Americ de Peguilhan, presentes en la Corte de Navarra y cerca del Señor de Vizcaya, Diego López de Haro, de quien cantó

Ramón Vidal: *en Diego que fo pros...*», J. A. Arana Martija, *Música Vasca*, 1976, 52.

¹⁸ *Relaciones entre la lírica de los trovadores y la poesía euskérica*, in J. M. de Leizaola, *Estudios sobre la poesía vasca*, 1951, 157 eta hur.

¹⁹ Leizaolaren lanak dira hemen ere aipagarri: *A propósito de un ritmo* (ik. La «Crónica» en la poesía popular vasca, 1961, 175-222), *La poesía latina de los tiempos carolingios y la euskérica* (ik. 1808-1814 en la poesía popular vasca, 1965, 181-262), *Parentescos antiguos* (ik. Romances vascos y literatura prehistórica, 1969, 204-275), *Relaciones entre la lírica de los trovadores y la poesía euskérica* (ik. Estudios sobre la poesía vasca, 1951, 157-205).

²⁰ J. Haritschelhar, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchabun*, 1969, 415.

²¹ F. M. Altuna Bengoechea, *Versificación de Dechepare*, 1979, 4. kapitulu guztia bereziki. Trobadoreen metrika eta estrofa sisteman dauden problemei buruz, ik. H.-I. Marrou, aip. lib., or. 69 eta hur. eta or. 127 eta hur. Gaztelaniazko literaturako arazo eta korronte diferentei buruz soluzioetan, ik. F. López Estrada, *Introducción a la literatura medieval española*, 1979, 165 eta hur. (VI. kap. «Estilística y métrica de la literatura medieval»).

²² «La improvisación es uno de los caracteres del concepto romántico del arte del pueblo; es la noción correspondiente a la inspiración del artista favorecido por la divinidad y representa como ésta una característica de la esencia instintiva de la creación artística. Ya Herder subrayaba que la *poesía natural*, a diferencia de la poesía artística, era una manifestación espontánea, inconsciente e ingenua del pueblo, el cual canta como los pájaros y crece y florece como las plantas». A. Hauser, aip. lib., 301.

NOTAS SOBRE LA INVESTIGACION DEL BERTSOLARISMO NOTES SUR LA RECHERCHE SUR LE BERTSOLARISME

El fenómeno del bertsolarismo es uno de los campos mejor estudiados en la literatura vasca y, sin embargo, lleno aún de interrogantes.

Ultimamente las investigaciones se han inclinado a considerar como tal solamente el bertsolarismo moderno, a partir de la Revolución Francesa o de principios del siglo XIX, aduciendo que cuanto precede a esta época se encuentra envuelta en oscuridad. Pero esta delimitación del bertsolarismo, acompañada no pocas veces de un arbitrario aislamiento del mismo en el conjunto de la producción literaria, incluso de la literatura oral, supone un grave empobrecimiento del concepto de bertsolarismo y, sobre todo, cierra todo camino a la investigación de posibles formas de bertsolarismo en épocas anteriores, así como al análisis de su presencia, directa o indirecta, en campos literarios tan diversos como pueden ser la poesía o el teatro vascos, por ejemplo. El bertsolarismo, como fenómeno literario, no puede ser limitado a las formas modernas de desafíos, campeonatos, etc., de los «plaza gizon» o a los «bertso paperak», aunque éstas aparezcan como sus formas específicas más manifiestas y más ricas.

El estudio del bertsolarismo debe considerar también sus relaciones con el folklore, romancero, refranero, etc. El estudio de su desarrollo, influencias, y la comparación con formas de poesía popular de otros pueblos, podrían arrojar mucha luz sobre temas aún debatidos en torno a métrica, ritmo, sistema de rimas.

Le phénomène du bertsolarisme a été très étudié dans la littérature basque, cependant il reste beaucoup de points obscurs.

Les dernières recherches s'inclinent à considérer comme tel seulement le bertsolarisme moderne, à partir de la Révolution française ou des débuts du XIXème siècle, sous prétexte que tout ce qui précède cette époque reste très obscur. Mais cette délimitation du bertsolarisme, souvent accompagnée de son isolement de l'ensemble de la production littéraire, voire de la littérature orale, appauvrit le concept de bertsolarisme, et empêche toute recherche des formes possibles du bertsolarisme à des époques plus lointaines. Elle empêche, par exemple, l'analyse de sa présence, directe ou indirecte, dans des domaines littéraires aussi variés que la poésie ou le théâtre basques. On ne peut pas limiter le bertsolarisme, en tant que phénomène littéraire, aux formes modernes de défis, championnats, etc., des «plaza gizon» ou des «bertso paperak», bien qu'il s'agisse des formes spécifiques les plus manifestes et les plus riches. L'étude du bertsolarisme doit considérer également ses relations avec le folklore, le «romancero», chansonnier, etc. L'étude de son développement, des influences, et la comparaison avec des formes de poésie populaire d'autres pays, pourrait éclairer des points encore obscurs, comme le mesure, le rythme, et le système des rimes.